

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak Eusko Jaurlaritzari jakinarazi dio ETBk proposaturiko digitalizazioa legez kanpoko delata eta arauak ezarritako prozedura jarraitzeko epea jarri dio

*Urrats horiek emateko, Foru Gobernuak errespetua eskatu du eta ETBri Nafarroan pelota-partiduak emateko eskubideak Foru Komunitatean lizentzia duten telebista-kateekin partekatzea proposatu dio.*

Lunes, 05 de mayo de 2014

Nafarroako Gobernuak gaur jakinarazi dio Eusko Jaurlaritzari ETBk Nafarroan zabalduko seinale analogikoa digitalizatzeko egindako proposamena legez kanpoko delata, Nafarroako LTDan frekuentziak okupatzen dituelako Ministerioaren baimenik izan gabe.

Nafarroako Gobernuak epea jarri dio Eusko Jaurlaritzari araudian ezarritako prozedurak jarraitzeko. Prozedura hori amaitzeko protokolo bat eta bi komunitateen arteko hitzarmen bat sinatu behar da, Ministerioari multiplex bat eskatu behar zaio eta multiplex hori zabaldu behar da Foru Komunitatean.

Nafarroako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoari legezko urrats horiek jarraitzeko abiapuntua Nafarroaren errealitate instituzionala eta nafarren interesak direla esan dio. Zentzu horretan, Foru Gobernuak gogorarazi du Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak 2009an sinatutako aurreko lankidetzaren protokoloa, UPNren eta Euskadiko Alderdi Sozialistaren arteko adostasunak babestutakoa, Eusko Jaurlaritzak hautsi egin zuela bere aldetik EAJ agintera iritsi zenean, EAE eta Nafarroa lurralde berean agertzen dituzten mapak erakutsita. Hala, protokoloaren hirugarren klausula urratu zen, hau da, Nafarroaren errealitate instituzionalarekiko errespetua.

Halaber, eta Nafarren interesak errespetatzeko, ETBri proposatu zaio ikus-entzunezko edukia emate aldera eskubideak erosten uzteko, pelota-partiduen kasuan gertatzen den bezala, Nafarroan emititzeko lizentzia duten telebista-kateek partidu horiek erosi eta eman ahal izan ditzaten edo telebista-kateen artean horren inguruko zerbait ados dadin.

Eskaera horiek Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lan-taldearen bileran egin dira. Bilera hori gaur goizean izan da Nafarroako Jauregian.

Bileran, Nafarroako Gobernuaren aldetik, Juan Luis Sánchez de Muniáin bigarren lehendakariorde eta Kulturako, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria, Edurne Elío Komunikazioko zuzendari nagusia eta Alfredo Huarte departamentuko idazkari tekniko nagusia izan dira. Eusko Jaurlaritzaren aldetik, Carmelo Arcelus Administrazio eta Zerbitzu

Orokorretako sailburuordea, Jesús Peña Martínez Lehendakartzako idazkari nagusia eta Mikel Agirre EITBko Ustiapen eta Ingeniaritzako zuzendaria izan dira bileran.

### **Legeak ez du beste biderik ematen**

Eusko Jaurlaritzak Nafarroako Gobernuari proposamena egin zion Foru Komunitatera gaur egun igortzen duen seinale analogikoa digitalizatzeko, autonomia-erkidego batean beste autonomia-erkidego bateko telebista-kate publikoa ikusteko legean jasotako izapideei aldi baterako irtenbidea emate aldera.

Proposamena Nasertic sozietate publikoak eta Nafarroako Gobernuko zerbitzu juridikoek aztertu dute. Ondorioen arabera, legeak ez du biderik eskaintzen Nafarroan ETB emateko, beraz, seinale analogikoa digitalizatzeko Eusko Jaurlaritzaren proposamena legez kanpokoa da.

"Ez dago frekuentzia erradioelektriko bat estatuko administrazioak bere eskumenez baliatuta egindako plangintzaren eta frekuentzien esleipenaren aurka igortzeko askatasunik duen ikus-entzunezko operadorerik. Beraz, Nafarroan ETBren seinale analogikoa proposatutako baldintzetan digitalizatzea legezko estaldurarik ez duen inguru erradioelektriko bat hartzea izango litzateke", dio txosten juridikoa.

Autonomia-erkidego bateko telebista-katea beste batean igortzeko, ikus-entzunezko komunikazioaren Lege Orokorrean aurreikusitako izapideen arabera, hitzarmen bat adostu behar da. Hitzarmen horrek igorpenaren beharrezko frekuentziak zehaztu behar ditu Industria, Energia eta Turismo Ministerioak egindako espektro erradioelektrikoaren plangintzaren arabera. Horretarako, Nafarroari bigarren multiplex bat esleitu beharko litzaioke. Gainera, hitzarmenak zehaztu behar du nori dagokion Nafarroako Foru Komunitateko igorpen-zentroetatik igortzeko behar diren ekipoak erosteko kostuak beregain hartzea, baita Euskal Autonomia Erkidegotik Foru Komunitateko igorpen-zentroetaraino seinalea garraiatzeko eta ingeniaritzako ekipoen kostua ere.